BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 51

D MAILA



Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz, behe oina eta bost goi oin dituena, gehi 1934ko jasodura atzeraemana. Harlandua eta silarrixka, batetik, eta juntura emendatua, bestetik, konbinatzen dituen fatxada. Zurezko begiratokia atariaren parean. 1938an, behe oineko lokalaren bi baoak lotu ziren. Proiektu komuna Urbieta 53 eta Moraza 6rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (6. goi oina, atzeraemana).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko eta silarrixkako elementuak.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak – behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.